



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

EMF-KO LEHIAKETA-ESKALADAKO TALDEA. 2023

HELBURU NAGUSIAK

Kirolarien kirol-garapena eta garapen pertsonala sustatzea, ezagutza eta balio sozialak eskuratzeko.

Kirola, oro har, eta mendiko kirolak eta eskalada, bereziki, ikusgai jartzeko eta sustatzeko kirol-ekitaldiak egitea.

Talde-lanean, laguntasunean, kiroltasunean eta ingurumenarekiko errespetuan heztea.

Euskal Selektzioen ofizialtasunaren aldeko apustua egiten jarraitzea eta, horren alde lan egiten den bitartean, Kirol Eskaladako Euskal Selektzioak selektzio gisa aritzea.

HELBURU ZEHATZAK

Baldintza fisiko, tekniko, taktiko eta psikologiko ezin hobeak dituzten eta hobetzeko konpromiso handia duten kirolariak identifikatzea.

Blokeko, abiadurako eta zailtasuneko lehiaketetan EMF ordezkatzeko duten kirolariei laguntza eta prestakuntza ematea, autonomia-erkidegoan, estatuan eta nazioartean.

Kirolariei kategoria guztietan eta, bereziki, absolutuetan, elitera iristeko laguntzea eta bitartekoak eta aholkuak ematea.

PARTAIDETZA-KUOTAK

EMFko eskaladako selektzioa kirolarien gehieneko kopuru batez osatuta egongo da, kategoria, genero eta modalitate (blokea, zailtasuna eta abiadura) bakoitzeko.

14 urtez azpiko kategoria: 2 kirolari, genero eta modalitate bakoitzeko; 16 urtez azpiko kategoria: 2 kirolari, genero eta modalitate bakoitzeko; 18 urtez azpiko kategoria: 2 kirolari, genero eta modalitate bakoitzeko; kategoria absolutua: 2 kirolari, genero eta modalitate bakoitzeko.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

*20 urtez azpiko kategorია: 2 kirolari, genero eta modalitate bakoitzeko

Azken kategoría hori irizpide teknikoaren arabera deituko da, lehiaketa bakoitzean dagoen aukeraren arabera.

EMFren helburuetako bat da kategoría bakoitzean parte hartuko duen erkidegoko, estatuko eta nazioarteko lehiaketetarako plaza guztietarako deialdiak egitea eta toki guztiak betetzea. Hala ere, aurrekontuak eta aurrekontu horrek ematen dituen aukerek zehaztuko dute kasu bakoitzean kirolari kopurua. **EMFk 16 kirolari arte deituko ditu** parte hartzen duen lehiaketetarako. Selektzioak kide gehiago izan ahal izango ditu une jakin batean, irizpide teknikoak hala erabakitzen duenean, baina haien parte-hartzea ordainketa partekatuaren bidez egingo da, eta EMFk haien inskripzioa ordainduko du eta jantziak emango dizkie, baina ez ditu logistikako gastuak ordainduko.

AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDE OROKORRAK

EMFren federazio-lizentzia nazionala edo goragokoa izatea.

Gutxienez 12 urte izatea, edo denboraldian betetzea.

Kirol-diziplinaren arloan zehapen irmorik betetzen ez egotea.

Intentsitate handiko kirola egitea eragozten duten lesio eta baldintzatzailerik ez izatea.

IRIZPIDE ZEHATZAK

Aurreko urteko lehiaketetan lortutako emaitzak aintzat hartuko dira, bai eta hautaprobetako emaitzak ere, halakorik balego.

14 urtez azpiko kategorian lehenengo urtez parte hartzen dutenen kasuan, aurreko urtean maila ofizialean lehiatu ezin izan direnez, EMFk egiaztatutako proba ez-ofizialeko postuak hartuko dira kontuan, eta hautaketa-prozesu bat egin ahal izango da.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

-Lehiaketetako emaitzak:

1. Euskadiko txapelketako eta kopako txapeldunak
2. Estatuko txapelketako rankinga
3. Estatuko kopako rankinga
4. Euskadiko txapelketako rankinga
5. Euskadiko kopako rankinga
6. Hautaketa-probetako rankinga

Euskadiko txapelketako eta kopako txapeldunak zuzenean sartuko dira EMFren eskaladako selekzioan.

Gorago aipatutako lehiaketa eta hautaprobetan lortutako emaitzekin EMFren ranking bat osatuko da kategoria bakoitzerako.

Aurreko urteko edo kategoriako kirolariek lehentasuna izango dute plaza huts bat betetzeko.

Hautaprobak lehiaketen simulakroak dira, eta denboraldia hasi aurretik egin daitezke.

Estatu-mailako lehiaketetan kirolarien maila egiaztatzeko balio dute, eta hautaketa-irizpide gisa eta kategoria bereko kirolarien arteko berdinketa hausteko erabil daitezke.

Lehenago aipatutako irizpide zehatzak betetzen ez dituen kirolaria honako beste irizpide tekniko honen bidez hautatu daiteke:

Potentzialtasunarekin lotutako irizpide teknikoa. Toki libreak daudenean, aurreikuspenen arabera epe ertain eta luzera begira emaitzak emango dituzten kirolariak aukeratu ahal izango dira.

EMF-REN BETEBEHARRAK

Informazioa behar besteko aurrerapenarekin ematea, lehiaketak planifikatu ahal izateko. Selekzioa urteko lehen hiruhilekoan osatuko da.

Joan-etorriak antolatzea eta dagozkion administrazio-izapideak egitea.

Izen-ematearen gastuak eta taldeko arduradunak aukeratutako ostatuaren eta joan-etorrien gastuak ordaintzea.

Kirolariaren interesak defendatzea, selekzioa ordezkatzeko duen lehiaketetan.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

Kirolariari aholkularitza ematea kirol-medikuaren, nutrizionistaren, fisioterapeutaren, kirol-psikologoaren eta EMFk dituen beste espezialista batzuen zerbitzuak izateko.

EMFk beretzat gordetzen du denboraldi bakoitzaren hasieran kirolarien osasun-kontrola egiteko eskubidea, halakorik egitea beharrezkoa ikusten badu, bai eta denboraldi horretan zehar beharrezkoak direnak egitekoa ere.

Kirol-prestakuntza ematea, kontzentrazioen eta entrenamenduen jarraipenaren bidez. Kirolariaren onurarako era guztietako dokumentuak egitea, hala dagokionean, eta haren onurarako adierazitako kudeaketa guztiak egitea.

Eusko Jaurlaritzarekin edo, hala badagokio, Kirol Kontseilu Gorenarekin kudeatzea goi-mailako kirolari gisa egindako aipamenak.

IRAUPEN-IRIZPIDEAK

Iraupen-irizpide hauetako edozein betetzen ez bada, EMFren eskaladako selekzioetik kanpo geratu daitezke kirolariak.

EMFrekin lotzeko kirol-kontratua sinatuta izatea.

Denboraldi bakoitzaren hasieran, kirolaren esparruko osasun-kontrol bat aurkeztea.

Errendimendu egokia izatea ikasketa akademikoetan.

EMFren ordezkari izatea lehiaketetarako deitzen zaionean (idatziz justifikatutako arrazoiengatik izan ezik).

Programatutako kontzentrazioetara eta ekitaldietara joatea.

Gainerako kirolariek, selekzioko kideekin eta talde teknikoarekin errespetuzko eta kiroltasunezko jarrera eta balioak agertzea.

Taldeko arduradunaren aginduak betetzea eta joan-etorri bakoitza antolatzeko irizpideak onartzea.

EMFk emandako taldearen arropa ofiziala erabiltzea, ezer aldatu gabe. Betebehar hori honako hauetan ere eskatu ahal izango da: lehiaketetan, sari-banaketetan, kontzentrazio ofizialetan nahiz horien aurreko eta ondorengo joan-etorrietan.

Dopinaren aurkako araudia zorrotz errespetatzea.